

Informazioa zabaltzen

Genero-ikuspegia duten hezkuntza-espazioak:
eskoletako komunen erronka

...Ezagutzen...

Amelia Barquín López

Eskoletako espazioak eta genero ikuspegia



Genero-ikuspegia duten hezkuntza-espazioak: eskoletako komun erroka

Ikastetxeetan genero-ikuspegia txertatzea funtsezko helburua izan da azken urteotan. Hainbat programek sustatu dute eskolako jolastokiak eta bestelako espazio komunak berrikustea, ingurune inklusiboak eta ekitatiboak direla ziurtatzeko. Hala ere, oraindik asko dago egiteko komun eta aldagelen egokitzapenean, ikasleen eguneroko bizitzarako oinarrizko espazioak baitira, historikoki generoaren ikuspegi binariotik diseinatu direnak. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da halakoen konfigurazioari buruz gogoeta egitea eta pertsona guztien inklusioa, segurtasuna eta ongizatea bermatuko dituzten konponbideetan aurrera egitea.

Ikastetxeetako komunak jaiotzean esleitutako sexuaren arabera egituratu izan dira tradizioz, eta horrek bazterketa eta ezinegona eragin diezaieke beren burua kategorizazio horren barruan identifikatzen ez duten pertsonen. Pertsona guztiak aintzat hartuta eta errespetatuta sentiarazten dituen lekua izan behar du eskolak, eta horrek genero-eredu zurrinak betikotzen dituzten azpiegiturak berrikusteko eskatzen du.


Ez da erosotasun-kontu bat soilik; eskubideei buruz ari gara, eta identitate guztiak berdinduz baliozkotuko dituen ingurunea bermatu behar da.

Hori lortzeko, funtsezkoa da ikasleen ahotsak entzutea, errespetuan oinarritutako bizikidetzara- arauak sustatzea eta instalazioak egokitzea, pertsona guztientzat inklusiboak izan daitezen. Zenbait ekimenek komun indibidualen edo mistoen aldeko aukera egin dute dagoeneko, eta, horri esker, edozein ikaslek erabili ahal izango ditu, bera irudikatzen ez duen kategoriatan batek interpelatua sentitu gabe.

Konponbide horiek, halaber, pertsona guztien intimitatea gehiago errespetatuko dela bermatzen dute, eta ikasle bakoitzak espazio horiek erosotasunez eta segurtasunez erabiltzeko bide emango dute. Gainera, mota horretako diseinuak mesede egin diezaieke irisgarritasunari edo pribatutasunari buruzko premia espezifikoak dituztenei ere, horrela eskola ekitatiboagoa sustatuz. Adibidez, ikusi da genero neutroko komunak ezartzea neurri eraginkorra izan dela eskola-espazioetan diskriminazioa eta jazarpena murrizteko, bai eta ikasleentzat oro har erosotasun handiagoa sustatzeko ere.

Eskoletako komun inguruko eztabaidak agerian uzten du birplanteatu egin behar direla genero-ikuspegi gabe diseinatutako hezkuntza-egitura ugari. Espazio horiek berrantolatzeak erresistentziak gainditzeko eta hezkuntza-komunitate osoarekin elkarrizketaguneak irekitzeko eskatzen du. Sentsibilizazioa funtsezkoa da prozesu horretan, oraindik ere aurreiritziak eta ezjakintasuna baitaude espazio irisgarri eta inklusiboak diseinatzearen garrantziari dagokionez. Ikasleak eztabaida horietan sartzeak, haien kezkek eta proposamenak entzuteak eta irakasleentzako eta irakaskuntzaz kanpoko langileentzako prestakuntza espezifikoak eskaintzeak aukera emango du eskola-kulturan benetako aldaketa bat sortzeko.

Hala, ezinbestekoa da sentsibilizazio- eta prestakuntza-prozesuak sortzea, hezitzaile guztiek uler dezaten eraldaketa horien garrantzia, eta ikasleei lagun egin ahal izan diezaieten beren garapenean errespetuzko eta berdintasunezko begirada batetik.



Kontua da komun bat bezalako espazio arrunt eta beharrezko batean inork inolako bazterkeriarik edo segurtasun-gabeziarik sentituko ez duen eskola baterantz aurrera egitea. Erantzukizun kolektiboa eta etorkizunerako erronka da diseinu inklusiboen alde eta pertsona guztien segurtasuna eta ongizatea bermatuko duten arauen alde egitea. Hezkuntza-erlaketak curriculum-dukietatik harago joan behar du, eta ikaskuntza garatzen den ingurunearen baldintza fisiko eta sinbolikoak ere jorratu behar ditu. Benetan inklusiboa den eskola bat eraikitzeak ezin ditu alde batera utzi alderdi horiek, eta hezkuntza-komunitate osoaren konpromiso irmoa eskatzen du.

Eskoletako komunak bidezkoagoa, errespetuzkoa eta diskriminaziorik gabekoa den hezkuntza baterako erreferentziazko espazio bihurtzeko. Azpiegituraz harago, eskubideei, bizikidetzari eta ikasgeletatik eraiki nahi dugun gizarte-motari buruzko eztabaida da hau. Ikastetxeetan komunetarako sarbide segurua eta inklusiboa bermatuz, pertsona askoren eskola-esperientzia hobetzeaz gain, aniztasunaren errespetuari eta onarpenari buruzko mezu argi bat ere bidaltzen da.

Horretarako hemen zenbait gomendio:

- Ikasle guztien segurtasuna, irisgarritasuna eta intimitatearekiko errespetua bermatuko duten komunak inplementatzea, eta pertsona bakoitzak arriskuan edo minduta sentitu gabe erabili ahal izango dituela ziurtatzea.
- Irakasleak eta irakaskuntzaz kanpoko langileak genero-ikuspegiaren eta aniztasunaren arloan etengabe sentsibilizatzea eta prestatzea.
- Erabakiak hartzeko orduan ikasleen iritzia kontuan izatea.
- Eskola-araudia eta -erregulazioak berrikustea pertsona guztiek komunetarako sarbide segurua eta eroso izateko duten eskubidea bermatzeko.
- Errespetuaren eta bizikidetzaren kultura sustatzea, aurreiritziak saihestuko dituen eta berdintasuna sustatuko duena.
- Ikastetxeetan azpiegiturak egokitzeko baliabideak eta finantzaketa eskaintzea.

Azken batean, eskoletako komunak inklusio- eta errespetu-eremu bihurtzeko aukera dute ikastetxeek. Pertsona guztien berdintasuna eta segurtasuna bermatuko duten azpiegituren eta araudien aldeko apustua egitea ezinbesteko urratsa da gizarte bidezkoago eta ekitatiboago baten balioak islatzen dituen eskola baterantz.

BERRIAK



INFORMAZIO GEHIAGO

EMAKUNDE. 2025eko martxoaren 8ko kanpaina:
"NI FEMINISTA NAIZ", feminismoak gizarteari egiten dion ekarpena aldarrikatzeko

"Ni feminista naiz" da Emakundek, hiru foru aldundiek eta EUDELEk bultzatzen duten martxoaren 8ko erakundearen arteko kanpainaren leloa. Goiburua "Feminismoa zurekin doa" esaldiarekin osatzen da, eta feminismoak gizarteari egiten dion ekarpena aldarrikatu eta berdintasunaren arloan lortutako aurrerapenei balioa eman nahi die.

AMELIA BARQUÍN LÓPEZ

Hispaniar Filologian doktorea eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultateko irakaslea.

Zergatik iruditzen zaizu beharrezkoa dela hezkuntza-zentroetan genero-ikuspegia txertatzea?

Genero-ikuspegia, finean, analisirako eta planifikaziorako tresna bat da, desberdinkeriak identifikatzeko eta problematizatzeko. Injustiziak eraldatzeko mekanismoak martxan jartzeko tresna ere bada Inor ez diskriminatzea, pertsona guztiak kontuan hartzea eta desberdinkeriak zuzentzea dira helburuak. Horretarako, hainbat alderditan jarri behar da arreta: harremanetan, curriculumean, edukietan, metodologian, ebaluazioan eta, noski, espazioetan. Hots, dimentsio askotara zabaldu behar da begirada hori.



Genero-ikuspegi binarioak oso presente egoten jarraitzen du. Zure ustez, nola eragiten die horrek ikasleei eta haien bizikidetzari?

Oro har, ikuspegi bitarraz baino gehiago, errealitate bitarraz hitz egin beharko genuke, zeren batzuetan ez baikara kontziente ere errealitate horretaz. Esaterako, orain dela urte gutxi konturatu ginen jolastokiak futbol-zelaiak zirela nagusikio. Orduan, ikastetxeetan pentsatzen hasi ginen horri erantzun bat eman behar zitzaioela, esku hartu egin behar zela nolabait, eta martxan jarri garen horietan konturatu gara ohiturak aldatzea ez dela erreza.

Bestalde, irakasle asko konturatzen hasi gara neskekin eta mutilekin ez dugula berdin hitz egiten. Adibidez, irakasleek ikasleei zerbait atsegina esan nahi dietenean, nesken kasuan itxurari egiten diote erreferentzia; hori, neska normatiboen kasuan, zeren, bestela, hori ere ez. Mutilei ez zaie horren inguruko erreferentziarik egiten edo ez horrenbeste. Kontziente izan gabe egiten dugu hori. Eta, gainera, konturatzen garenean, pentsatzen dugu: "Nik ez nuen hori egin nahi, baina nolatan egin dut hori orain arte eta ez naiz konturatu?".

Adibide soilak dira, baina bitartasuna hedatuta dagoela erakusten digute. Errealitate horiek erabat naturalizatua daude, eta espazioei dagokien bitartasuna ere bai. Lehen jolastokiak aipatu ditut, baina komunak ere horrela antolatzen dira, eta hori normalizat hartzen da. Gauza batzuk birpentsatu egin beharko lirateke.

Eraginari dagokionez, binarismoa etxetik datorkigu. Ikusi gurasook nola desberdintzen ditugun gure umeen gorputzak txiki-txikitatik. Eta umeak, hiru urte ditueneko, badaki neska ala mutila den, nahiz eta gorputzak horren desberdinak ez izan. Haien itxura ere txikitatik bereizten dugu, ikurren bidez (koloreak, arropa, zapatak, ilea...). Hori guztia etxetik dator, eta eskolan jarraitu egiten du, bultzatu egiten da. Ea eskolan binarismoarekin kolaboratzeari uztea lortzen dugun; ea kontzientzia garatu eta gure jokaerak aztertzen ditugun, praktikak ere aldatzeko.

Besterik ere bada: ikastetxeetatik kanpo gertatzen den bezala, badira ezarritako genero-arau edo -aginduei jarraitzen ez dieten zenbait ume; medikuak gauza bat esan zien, baina haiek beste gauza bat sentitzen dute. Komunak, adibidez, bitarrak direnean arazo bihurtu daitezke, une deserosoak sortu ditzaketelako ume hauentzat; sufrimendua eragin dezakete. Trans izan gabe, ikasle baten genero-adierazpena ez bada normatiboa, bera ere ez da eroso egongo komun bitar batean; hau da, badirudi binarismo hori eskatu egiten dutela espazioek, gure gorputzak modu bitarrean kudeatzeko. Hori konpondu ahal izango litzateke komunak pertsonentzat izango balira, eta ez emakumeentzat edo gizonentzat. Baina ez da beti horren erraza.

Batzuek aldatu egiten dituzte seinaleak eta listo, baina, beste batzuetan, aldaketa arkitektonikoak egin behar dira, komunak denentzat erosoak izan daitezten. Izan ere, kasu batzuetan, egoera deserosoak ekar ditzakete. Adibidez, neska batentzat ez da eroso komunean sartzea eta aurkitzea gizon batzuk txiza egiten ari direla paretan elkarren ondoan dauden koketan, eta mutil horientzat berdin. Hobe paretako konketak ere gelazketan baldin badaude, atea eta guzti, zutik txiza egiten duten mutilen intimitatea ere babesteko (beste batzuek eserita egiten dutelako). Aldaketa horiek egiteko, dirua ere behar da.

Eta zein erresistentzia sortu daitezke aldaketa horiek aplikatzean?

Argudioetako bat segurtasunarekin eta intimitatea babestearekin lotuta egoten da. Batzuek esaten dute: "Komunak leku ez-seguruak izan dira tradizionalki: bertan gertatzen dira borrokak eta erasoak; hor ikusten da nesken segurtasuna zaindu behar dela...". Eta nik uste dut horri ere kasu egin behar zaiola. Baina aldaketa arkitektoniko batzuk burutzea oso lagungarria izan daiteke eta espazio horiek birdiseinatzean, irizpideetako bat da kontuan hartzea nolakoak izan behar diren segurtasuna ziurtatzeko, denontzat seguru eta erosoak izango diren espazioak eraikiz.

Nire ustez interesgarria izango litzateke institutuetan ikasleek eta irakasleek komunak partekatzea, denon artean zaintzeko eta garbi mantentzeko, eta botere-harremanak lantzeko.

Oraindik eszeptiko direnei begira, nola argudiatuko zenuke komunak generoaren ikuspegitik birpentsatzeko beharra?

Nik uste dut ikastetxeetan ez dela zaila. Ikusi etxean zer gertatzen den: etxean emakumeak, gizonak eta ez-bitarrak bizi gara, bertan zoruko komunak daude, eta horiek dira denok erabiltzen ditugunak. Orduan, eskolako komuna nolakoa izan behar da? Etxekoa bezalakoa ala leku publikoetan bezalakoa? Bada, izan daiteke etxekoa bezalakoa, denok partekatzen eta zaintzen dugun leku bat, garbia, segurua, intimoa, etab. Nik uste dut hezkuntza-espazioetan horrela jokatzeko oso zentzuzkoa dela. Espazio horiek partekatzen ikasi beharko genuke, albo batera utziz zein generotan sartu

gaituzten edo zein generotakoak sentitzen garen.

Badaukazu buruan komuna birplanteatzeko eredutzat hartu dezakegun beste lekuetako esperientzia positiborik?

Bai. Eskola batzuk hasiak dira hau martxan jartzen, hala nola Gasteizko Alde Zaharreko Ramón Bajo eskola. Eraikina birformulatzeko aukera izan zutenean, aldaketak egin zituzten komunitetan. Hezkuntza komunitateak eta ikastetxea bisitatzera joan direnek oso balorazio positiboa egiten dute. Badakit beste ikastetxe asko gai horren inguruan erabakiak hartzen ari direla, bai komunei, bai aldagelei dagokienez; besteak beste, MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)...

Azkenik, etorkizunari begira, nola irudikatzen duzu eskola-espazioaren bilakaera genero-inklusioari dagokionez?

Pentsatu nahi dut etorkizunean pertsonak izango ditugula buruan, ez neskak edota mutilak, eta pertsonon beharretan pentsatuko dugula. Hori horrela, genero- eta botere-harremanak aintzat hartuta, hainbat espazio birpentsatu egingo dira: jolastokiak, komunak... baita ikastetxeak haien osotasunean ere. Institutu batzuk, kasu, oso itsusiak dira. Haur-hezkuntzan espazioak zoragarriak dira, baina, mailaz igo ahala, itsusten joaten dira. Institutu batzuetan ezin da paretetan ezer jarri. Jolastokiak, batzuetan, futbol-zelaiak dira, baina, beste batzuetan, zenbait institututan, basamortuak dira: ez da ezer egoten; ez mahairik, ez zuhaitzik, ez ping-pong mahairik ere... Ematen du gaztetxo horiek ez dutela ezer merezi. Benetan ezin da sofarik jarri korridoretan, edo egonleku atsegini? Benetan gazteek ezin dute paretetan ezer zintzilikatu? Martxoaren 8arekin edo Euskararen Egunarekin zerikusia duena bakarrik? Gero esaten da gazteek ez dutela atxikimendurik erakusten feminismoarekin edota euskararekin... Ulertzekoa da, autoritatearen baimen-ikur gisa hartzen baitituzte. Gaztetxoan logela begiratu behar da, eta ikusi zein garrantzitsua den haientzat marka edo nortasun-ikurrak izatea... Baina, gero, ikastetxean ez zaie marka hori erakusten uzten... Gauza asko daude oraindik lantzeko.

01

Irakurtzeko


- Ikastetxeko espazioak eta generoa: patioak, komunak eta aldagelak Igeldo eskolan.
- Pikara Magazine ¿En qué váter entramos?
- Komun berezituak neskak eta mutilentzat ala ez? Eskola, generoa eta arkitektura



(informazio gehiagorako sakatu textuan)

DENBORA PASA

GURUTZEGRAMA



Vertical

1. Día en el que se conmemora la lucha de las mujeres por sus derechos.
2. Concepto que describe la solidaridad entre mujeres para enfrentar juntas las desigualdades.
3. Según Angela Davis es “la idea radical que sostiene que las mujeres somos personas”.

Horizontal

1. Color que representa el Feminismo.
2. Alude al proceso de toma de conciencia individual y colectiva de las mujeres, que les permite aumentar su participación en los procesos de toma de decisiones y de acceso al ejercicio de poder.

SOLUCIÓN: Horizontal (1. Morado, 2. Empoderamiento)
Vertical (1. Ocho, 2. Sororidad, 3. Feminismo)